

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### NAVARIDASKO UDALA

#### Lurzatiak lagatzea, "Paulejas" izeneko VI – 10.099 ehiza esparrua berritzeko

"Paulejas" izeneko VI – 10.099 ehiza esparrua berritzean sartuta egongo direnez horren mugen barruan dauden lurzati pribatu zein publiko guztiak, Navaridasko Udala eragindako lurren jabeen baimenak biltzen ari da, martxoaren 17ko 2/2001 Legeak, Euskadiko ehizarenak, 21. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Horretarako, iritziko da ezen iragarki hau ALHAOn argitaratzen denetik hasita 15 egun baliaduneko epean horren kontrako idazkirik aurkezten ez dutenek baimen esangabea ematen dutela, eta ulertuko da udal honek baimena daukala ezarritako epean kontra agertzen ez direnen lurzati eta finka guztiak sartzeko ehiza esparru horretan.

Guztiek jakin dezaten eta dagozkion ondorioak izan ditzan argitaratzen da.

Navaridas, 2020ko otsailaren 27a

*Alkatea*

**MIGUEL ÁNGEL FERNÁNDEZ GONZÁLEZ**